



BBK OPEN SCIENCE FEST 2021-EK HERRITARREK PARTE HARTZEKO PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEA IREKI DU

- **BBK kunak, BIOOKen eskutik, BBK Open Science Fest 2021 bultzatzen du, ekainaren 8etik 15era.**
- **Festibala zientziaz gozatzea eta gizartearen eta ingurumenaren hobekuntza bultzatzea, modu irekian eta parte-hartzailean, proposatzen du.**
- **Proposamenak aurkezteko epea apirilaren 14an hasi da eta maiatzaren 9ra arte iraungo du.**

Bilbo, 2021eko martxoaren 14. BBK Kunak, BIOOKen eskutik, BBK Open Science Fest 2021 zientzia festibala bultzatzen du. Jaialdi honek aukera ematen du zientzia irekia eta parte-hartzailea, baita horrek mundu hobea eta jasangarriagoa lortzeko motor gisa sortzen dituen aukerak ere, ezagutu, partekatu eta horietaz gozatzeko.

Prentsa Oharra

BBK Open Science Fest (BBK OSF), aurten ekainaren 8etik 15ra egingo dena, zientzia-topaketa bat da, eta herritarren parte-hartzea funtsezkoa da bertan; beraz, dagoeneko deialdi irekian parte hartzeko proposamenak aurkezteko epea ireki da.

Nork parte har dezake? Zientziarekiko grina partekatu nahi duen edonor, hezkuntza jarduera berritzaile bat, praktika esperimental bat, ikerketa proiektu bat, ingurumenaren osasuna hobetzea bilatzen duen jarduera bat, sorkuntza artistiko bat, etab. aurkeztuta, zientzia herritarrek egitea ahalbidetzen duen edozein proiektu edo ekimen.

Jaialdia herritarren parte-hartzea sustatzeko BBK Kunaren ildoan sartzen da, eta edizio honetan bizi-esplorazioan, herritarren zientzian, zientzia komunitarioan eta gizarte-berrikuntzan oinarrituko da.

Jaialdiaren balioekin eta/edo kategoriekin bat datorren proposamen bat duenak apirilaren 14tik maiatzaren 9ra bitartean bidal dezake, ekainean BBK Open Science Fest 2021eko "Zientzia Irekiko Topaketa"n aurkezteko aukeraren bila.

[Open Call](#) honek kategoria batzuk aurkezten ditu, parte hartu nahi duten pertsona eta erakundeentzako gida gisa balio dutenak: Herritarren Zientzia, Komunitate Zientzia, Naturalismo Digitala, Pandemia Ondoren, Bioartea eta Biodiseinua, Alternatiba Jasangarriak eta Gizarte Berrikuntza, Tailer eta Esperientzia Esperimentalak edo Sortzaileak, Hezkuntza Berrikuntza, Bizitza, Hazkundera eta Garapena, Zientzia Irekia eta Bizitza/Zientzia Umorearekin.

Prentsa Oharra

Proposamenak teorikoak edo praktikoak izan daitezke. Bereziki baloratuko dira proposamen parte-hartzaileak, praktikoak edo esperimentalak, eta, batez ere, kode irekiko erreaktiboak, ekipamenduak eta materialak, kostu txikikoak, erraz eskuratzeko modukoak eta jasangarriak erabiltzen dituztenak.

Proposamenen hautaketa parte-hartzailea

BIOOK taldeak, BBK Kunak, laguntzaileek eta boluntarioek osatutako komunitate askotariko batek baloratuko ditu jasotako proposamenak. Herritarrak ere protagonista izan daitezten, sare sozialetan aurkeztutako proposamenei herritarrek emandako erantzuna baloratuko da.

Deialdiaren baldintzak betetzen dituzten proposamenak hurrenkera kronologikoan aurkeztuko dira sare sozialetan, eta herritarrak iritzia ematera eta gustukoenak aukeratzera bultzatuko dira. Batzordeak oso kontuan hartuko ditu hautaketa-prozesuan zehar herritarrek adierazitako iritziak eta lehentasunak.

Ebaluazio-batzordeek beste ezaugarri batzuk ere hartuko dituzte kontuan: originaltasuna, erabilgarritasuna, gizarte-eragina, balioak, sormena, erreproduzigarritasuna, dibertsioa, umorea, ikusgarritasuna, dibulgazio-hizkuntza, ulergarritasuna, lankidetzaren proposamenak, berdintasuna eta jasangarritasuna.

BIOOK

BIOOK bokazio soziala duen erakundea da. Do It Yourself biologia (DIYbio), zientzia irekia, herritar zientzia eta zientzia komunitarioaren abangoardian dago. Korrante global hauek biologiaren eta beste zientziaren praktika, beste diziplina batzuekin elkartuta, errazten dute eta kultura eta ekoizpen zientifikoa sustatzen dituzte,

Prentsa Oharra

herritarrek eta herritarrentzat egindako zientzia, profesionalaren tresnak eta metodologia erabiliz. BLOOken helburu nagusia biologiaren eta zientziaren praktika jendartean hedatzea da, pertsonen eta komunitateen kezkei eta beharrezanean erantzuteko, herritarrek gizartearen eta ingurumenaren hobekuntzan protagonista izan daitezzen.

BBK KUNA

BBK beti egon da Bizkaiko errealitateari lotuta, eta bertoko erronkak konpontzen ibili da. 100 urte baino gehiagoz, Bilbok eta Bizkaiak unean-unean izan dituzten premia edo beharrezanean erantzuteko proiektuak zuzendu ditu, BBK Gizarte Ekintzaren bidez. Gizartea gero eta konplexuagoa da, eta erronka horiek ere bai. Horregatik, BBK-k bi abiaduratan lan egitea erabaki du: oraina, Gizarte Ekintzaren bidez; eta etorkizuna, BBK KUNAREN bidez. BBK-k jauzi bat emango du denboran etorkizuneko Bizkaia ezagutzeko eta Lurraldearen erronkak orainalditik konpontzeko. Bizkaiko erronken konponbide-faktoriak bost solairuko eraikina izango du Bilbo Zaharraren bihotzean, adinekoren zahartzeari eta bakardadeari, klima-aldaketari, iraultza teknologikoari, hirien eraldaketari, migrazioari, ... irtenbideak emango dizkieten proiektu berritzaileak sustatzeko. Inor atzean utzi barik, gizarte gisa hazten jarraitu ahal izateko gainditu beharreko erronkak dira guztiak.

Nazioartean aitzindari izango den zentro bat sortu gura da, gizarte-eraldaketari aplikatutako ikerketarekin, auzoaren parte-hartzearekin eta gizarteko eragile guztien —herritar, unibertsitate eta ikerketa-zentro, administrazio publiko eta enpresa pribatuaren— elkarlanarekin. Hori bereziki beharrezkoa da bizitzen ari garen ziurgabetasun-une hauen ostean, agerian uzten baitute tresna egokiak izan behar ditugula etor daitezkeen krisi berriak detektatzeko eta etorkizuneko eszenatokiak eraikitzeko.